

Mondragon Unibertsitateko Herbehereetako, Madrilgo eta Gipuzkoako 250 ikaslek mundu osoan zehar bidaiatuko dute proiektuak garatzeko.

2013/02/11

250 ekintzaile dira, eta beren prestakuntzan, mundu osoan zehar bidaiatuko dute, beste herrialde batzuetako esperientziak ikasteko eta beren ekintzailtza-proiektuak garatzeko. Hau da, proiektuak eta enpresak martxan jartzeko. Eta denek bi ezaugarri hauek dituzte: Mondragon Unibertsitateko LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua) –Espainian ematen den bakarra– edo harekin lotutako masterren bateko ikasleak dira guztiak. Gradu horrek ikasteko metodologia goitik behera aldatzen du, ikasleek eginez ikasten baitute, eta ideiak eta proiektuak martxan jartzearen garrantzian oinarrituta baitago. Gainera, ikasle guztiak ekintzaileak dira, edo espiritu ekintzailea dute. Izan ere, egia esan, ez zaie ikasle deitzen; talde-ekintzaileak dira (leinner-ak, ekintzailtzaren argotean), eta lehen ikasturtetik, beren enpresak eratzen dituzte, benetakoak eta benetako diruarekin. Hori da leinnerrek gainditu beharreko erronketako bat. Baina ez bakarra.

LEINN graduan, nazioarteko eskarmentuak ezinbesteko garrantzia hartzen du, eta horretarako, learning journey izeneko bidaiak egingo dira. Horrenbestez, ikasketa-bidaia horiek oso garrantzitsuak dira graduak irauten dituen lau urteetan. Urtero, bidaia bat egingo dute, eta bidaia bakoitzak bere helburuak izango ditu. Lehen ikasturtean, Mondragon Unibertsitateko LEINN graduako ikasle guztiak bi hilabeteko prestakuntza-bidaiak egiten dituzte Tiimiakatemia-ra (Finlandia) –handik hartu zuen Mondragon Unibertsitateak gradu aitzindari hau egiteko ideia–; bigarren ikasturtean, Estatu Batuetara joaten dira, hilabetez; ondoren, hiru hilabetez joaten dira Txina, India, Brasil, Mexiko eta beste herrialde batzuetara, hirugarren ikasturtean.

Lehen ikasturteko ekintzaileak, Herbehereetakoak, Madrilgoak eta Gipuzkoakoak, Finlandian daude honezkero –hain zuzen ere, ekintzailtzaren sorlekuan–, eta beste ikasturteetako ekintzaileek Txinara, Indiarra eta San Frantziskora bidaiatuko dute laster, beren prestakuntza osatzeko. Haien guztien helburua beste esperientzia batzuetatik ikastea da, eta herrialde horietan proiektuak martxan jartzea.

Gipuzkoa. Madril. Herbehereak

Ikasturte honetan, graduaren zati bat, enprekin benetako proiektuak garatzeari buruzkoa, Euskadin emateaz gain –hain zuzen, Donostiatik hurbil, Irunen eta Oñatin, Mondragon Korporazioaren eskutik kooperatibismoaren eta ekintzailtzaren sorlekuak diren herrietan–, Madrilan eta Herbehereetan ere ematen da. Mondragon Unibertsitatean duela lau urte sortutako gradu berritzailea hurbildu nahi zaie leku horietako ikasleei. Hain zuzen, bi leku horietan, 35 ekintzaile daude honezkero.

Lehen ikasturteko ikasleak Finlandian daude; ikasketa-bidaia horretan, zazpi aste egongo dira. Ekintzaileek aukera izango dute finlandiar ikasleekin batera proiektuak sortzeko, eta gaur egungo ikasleek eta graduatutako ekintzaileek sortutako enpresak ezagutuko dituzte. Ikasketa-bidaia horrek beste helburu espezifiko batzuk ditu: konfiantzazko eta nazioarteko lankidetzazko giroa sortzea, kultura-ingurune ezezagun batean proiektuak sortzea, eta programa akademikoan sortutako enpresetako lana antolatzen eta koordinatzen ikastea.

LEINN gradua

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza nazioarteko graduak (LEINN)



egungo gizartearen erronkarik handienetako bat gainditu behar du: XXI. mendeko pertsonen, enpresen eta gizartearen beharrei erantzuteko heztea. Horretarako, goitik behera aldatu du unibertsitate-ikasketen metodologia. Metodologia berriak hiru oinarri nagusi ditu: eginez ikastea, benetako proiektuak garatuz, ikasleek sortutako enpresak ikasketa-tresna izan daitezzen; talde-ekintzailetzan aritzea; eta nazioarteko ikasketa-bidaien bidez ikastea. Hona hemen horren emaitza: karrera amaitu eta hurrengo bi urteetan, Finlandiako Team Academyko graduatuen % 47k ekintzaile gisa jarraitzen dute beren enpresetan. Espainian, berriz, unibertsitate-ikasleen % 7 soilik izaten dira ekintzaileak.

Mondragon Unibertsitateko LEINN graduak Finlandiako Team Academyk azken bi hamarkadetan arrakastaz garatutako metodologia aplikatzen ditu; hau da, goi-mailako hezkuntzan nazioarteko erreferentzia diren metodologiak. LEINN gradua Mondragon Unibertsitateko gradu-titulazio ofiziala da, Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparruak onartua. Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy unitatean ematen da.

Mondragon Team Academy ekintzailetza-unitatea, LEINN gradua ematen duena, Team Academy ereduaren erreferentzia nagusizat hartzen da Finlandiatik kanpo. Mondragon Team Academy unitatea Tiimi Akademia hezkuntza-organismoaren Nazioarteko Sarearen barruan dago. Organismo hori Jyväskylä-ko Zientzia Aplikatuen Unibertsitatean (Finlandia) sortu zen orain dela 18 urte. Team-company bakoitzak bere ikasketa-planarekin sortzen da, eta emaitza bikainak lortu dituzte denek. Hori dela eta, izugarritzko ospe ona lortu dute; izan ere, ikasleen % 36k beren negozioak sortzea lortu dute.